

MUNGIARRA

ZEZEILA FEBRERO 2024 ≈ 72. Zkia.



AGINTE PLANA:
Etorkizuneko Mungia
eraikiteko ardatza

Mungiako Udalak
historiako
aurrekonturik
handiena onartu dau

Udal
Gaztedi Mungialdea
programea aurten
bere abian da

Udalak 20.000 m²
baino gehiago
asfaltatu
dauz



MUNGIA
UDALA

www.mungia.eus



Plan de Mandato

☞ Gure nortasuna eta balioak, Mungia osoa bardintasunean garatzeko lurralde-oreka eta, horren ganera, lankidetzan parte hartzea dira udalerria garatzeko aginte-planaren zutabeak.



El gran objetivo del mandato 2023-2027 es seguir profundizando en un Mungia de oportunidades, más cohesionado y más verde. Todo ello dentro de un modelo de desarrollo sostenible que ponga a las personas en el centro y que sea respetuoso con nuestro entorno. Para ello, se han desarrollado 83 actuaciones.

Dentro de este modelo de desarrollo sostenible, en este mandato el ayuntamiento profundizará en tres aspectos:

- La puesta en valor de nuestra identidad y valores propios.
- El equilibrio territorial, para que todos los barrios de Mungia se desarrollen igual.
- La participación y colaboración son la forma de construir Mungia

El Plan de Mandato íntegro se puede consultar en la web municipal www.mungia.eus

Ia 27 milioi euroko aurrekontua onartu dau Mungiako Udalak, historiako handienetakoa

☞ Mungia aprueba un presupuesto de casi 27 millones de euros, uno de los más altos de su historia

lazkoaren aldean, % 5,2ko igoerea izan dauen aurrekontua da, eta gaurko Mungia hobetzeko lanean jarraitzea eta, aldi berean, etorkizuneko Mungia garatzea dau helburu.

Amaitzeko, nabarmendu behar da aurten bere Udalak zero zorragaz jarraitzen dauela.

ARLOA	KOPURUA
ALKATETZA	543.235,48
BALIABIDE OROKORRAK	9.884.042,58
EKONOMIA ETA FINANTZAK (OGASUNA)	627.894,50
EUSKERA ETA KULTURA	1.498.650,00
GIZARTE EKINTZA, HEZKUNTZA, GAZTERIA ETA BARDINTASUNA	1.245.448,00
KIROLAK	1.826.750,00
LURRALDE (HIRIGINTZA ETA INGURUMENA)	9.829.274,00
SUSTAPEN EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA	1.463.996,28
GUZTIRA	26.919.290,84



2024 urteko Aurrekontu Parte-hartzaileak martxan

Los proyectos seleccionados en los anteriores presupuestos participativos ya son una realidad, como son el parque botánico de Uriguen o el parking de autocaravanas del ferial, entre otros. Mungia ya trabaja en los de 2024.



Mungian Aurrekontu parte-hartzaileen aurreko edizinoan hautatutako proiektuak prest dagoz; eta honeexek dira, besteak beste: Uriguengo parke botanikoa eta Ferialekuan jarritako autokarabanen aparkalekua. Mungiako Udala edizino barri batean dabil lanean. Izan bere, partaidetza bidezko 2024ko aurrekontuen lehenengo fasea amaitu da, eta udal-teknikariak aurrez hautatutako proiektuak aztertzen dabilz.



Harrera itzela Mungiharro 2024ko partaidetza prozezuan

El deporte es el protagonista del calendario 2024, pronto comenzará el proceso participativo para Mungiharro 2025. El tema del concurso fotográfico será "Mungia Bizia" (Un Mungia vivo).

MungiHarro 2024 egutegia janzteko kanpaineak harrera ezin hobe euki eban Mungiarron artean. Izan bere kopuruak handiak izan dira bai heldutako argazkietan eta bai argazkion aukeraketan parte hartu daben mungiarren kopuruan. Dakizun moduan 2024an kirola da nagusi gure egutegian. Datorren urteko egutegiko gaia aukeratu da, **Mungia Bizia** izango da.



Mungia avanza en su nuevo PGOU

Abenduaren 22ko Osoko Bilkuran HAPOn hasierako onespeneren dokumentua idazteko irizpideak eta helburuak onartu ziran. Erredakzino-taldea HAPOn hasierako onespeneren dokumentua, ingurumen-azterketa estrategikoa eta azterlan osogarriak egiten dabil.



Durante la exposición pública del Avance del PGOU y Documento Inicial Estratégico se presentaron 51 sugerencias y alternativas, además de 3 informes de la Diputación Foral, por el que se recibió informe de UTE MUNGIA GARATUZ en contestación a las mismas.

El Pleno del 22 de diciembre, aprobó los criterios y objetivos, que servirán para redactar el documento de aprobación inicial del PGOU. El equipo redactor está elaborando el documento de aprobación inicial del PGOU, su Estudio Ambiental Estratégico y estudios complementarios.

Un año más se pondrá en marcha Udal Gaztedi Mungialdea

2024an bere abian jarriko da Mungialdeko 16 eta 30 urte bitarteko gazteentzako Udal Gaztedi Mungialdea programea. Parte hartzeko, zoaz Mungialdeko Behargintzara.

Este 2024, también se pondrá en marcha el programa *Udal Gaztedi Mungialdea*. Dirigido a jóvenes de 16 a 30 años de Mungialdea, se centrará en la implantación, impulso y desarrollo de políticas integrales de juventud a través de acciones entre la juventud de la comarca.

Si quieres participar acude a Mungialdeko Behargintza.

Gazte ekintzaileen topaketa eta dirulaguntza banaketa: 1.000 euroko laguntzak banatu jakezan 8 gazte ekintzaileri.



VII. Mungilan 2023

La VII edición de Mungilan fue el escaparate para ayudar a las personas demandantes de empleo a incorporarse al mercado laboral y poner en valor la cultura emprendedora de Mungialdea.

Joan dan zemendian, 2023ko Enpleguaren Astea ospatu zan Mungian. Mungilan azokaren VII. edizinoa erakusleiho bat izan zan enplegu-eskatzailerei lan-merkatuan sartzen laguntzeko eta Mungialdeko ekintzaitza-kulturari balioa emoteko. Illo

horretan, hainbat profesionalek enpleguari eta inguruko enpresen egoerari buruz berba egin eben, eta, horren ganera, lanaren bilaketa aktiboaz eta marka personal baten sorreraz berba egin eben, bai eta ekintzaitza bizimoduaz bere.




Enpresen topaketa / encuentro entre empresas

Langabeziaren datuak hobera doaz

Los niveles de desempleo registrados en nuestro pueblo se encuentran en los más bajos de los últimos años, de manera que, en diciembre de 2023, son 748 las personas residentes en Mungia las registradas como desempleadas en los servicios públicos de empleo.

El índice de paro es del 8,4%, encontrándonos en los niveles más bajos desde el estallido de la crisis financiera en 2008. En esa época la tasa fue del 8,8%.

Evolución del empleo registrado en Mungia





Gure herrian erregistratutako langabezia mailak akabuko urteetako bajeunak dira.



Mungialdeko Behargintza en cifras

Acceso al mercado laboral y puesta en marcha de negocios - 2023

1.028 personas atendidas



- **952 personas usuarias orientadas laboralmente** de forma personal.
- **156 ofertas de trabajo captadas.**
- **250 contratos laborales suscritos** por las personas usuarias atendidas por la entidad.
- **18 cursos impartidos** con **228 personas participantes.**
- **16 talleres** en el marco de los procesos de orientación laboral con **108 participantes.**
- **37 negocios puestos en marcha** con el apoyo técnico de la entidad por parte de **42 personas emprendedoras, generando 53 puestos de trabajo.**
- **11 talleres de iniciativas empresariales** realizados con **63 personas participantes.**
- **3 cursos de gestión empresarial** realizados con **42 personas emprendedoras formadas.**



Errosko Solidarioa

Un año más, el 5 de enero celebramos la fiesta del Roscón Solidario, con la presencia de Joana Flaviano y Patxi Salinas. Los 1.894 euros recaudados se han destinado a la Asociación STOP-FA para la investigación de la enfermedad rara Ataxia de Friedreich. El ayuntamiento ha aportado otro tanto para esta causa.



☞ Batutako 1.894 euroak STOP-FA alkartearentzat izan ziran. Friedreicheko Ataxia gaixotasun arraroaren ikerketan erabilteko. Udalak beste horrenbeste jarri dau helburu bererako.

Jagoten programea



Memoria tailerra

Jagoten programeak mendeko pertsonen eta euren zaintzaileei zuzendutako ekintzak garatzen dauz. Hainbat tailer eta jarduerak egiten dira urtero, autonomia sustatzeko eta jagoten dabezane laguntza psikosoziala eskaintzeko.

☞ El programa Jagoten desarrolla acciones, talleres, actividades y apoyo psicosocial para las personas dependientes y sus personas cuidadoras.

Mungia Lagunkoia: edadekoen bizi kalidadea hobetzeko



☞ Udalak Mungia Lagunkoia Programaren Ekintza Plana azaldu deutse herritarrei. Programearen helburua gure nagusien bizi-kalidadea hobetzea da.

Durante la última semana cultural de Danontzat Elkartea, la teniente de alcaldía Bakarne Egia explicó a las vecinas y vecinos el

Plan de Acción del Programa Mungia Lagunkoia, dirigido a mejorar la calidad de vida de las personas mayores de nuestro municipio.

60 familia Guraso Eskolan



2017tik hona, programa honen bidez familiei lagundu gura jake euren hezkuntza-lanean, eta zeregin hori, batzuetan, erronka handia izan daiteke; izan bere, sarritan zalantzak sortzen dira arazo zehatzetan.

10 saioko hiru modulu eskaintzen dira, seme-alaben adinaren arabera antolatuta: 3-6 urte bitartekoak, 7-12koak eta 12-16 urte bitartekoak. 60 familia dabilta parte hartzen.

☞ *Es un programa para ayudar a las familias en su labor educativa, tarea que, supone un gran reto, ya que muchas veces surgen dudas en problemas concretos.*

Nire zuhaitza eta biok: naturagaz bat eginez



☞ *Más de 90 niñas y niños plantaron un árbol autóctono, uno por cada menor, para simbolizar su unión con la naturaleza.*

Mungiako 90 umetik gora izan dira bertoko arbola autoktono bat landatu ebenak, bakoitzak berea. Nire zuhaitza eta biok ekintza naturagazko lotura erakusten dauen ekimena da.

Iraunkortasunerantza hezten



☞ *Miles de estudiantes de Mungia celebraron el Oinez busa, con motivo del 'Día sin mi coche' y de la Semana Europea de la Movilidad Sostenible*

Mungiako milaka ikaslek Oinez busa ospatu eben, 'Autorik bako eguna' eta Mugikortasun Jasangarriaren Europako Astea dirala eta. Holan, Haur Hezkuntzako 5 urteko taldeetatik hasita

Lehen Hezkuntzako 6. mailara bitarteko ikasleak euren ikastetxetik Mungiako Matxin plazara joan ziran, eta han beste ikastetxe batzuetako ikasleak batu ziran.

Mungia celebró el XI. Festival Internacional de Cine Invisible

☞ *Hamaikagarren urtez jarraian, Mungiak Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia ospatu eban. Giza eskubideetan, kulturartekotasunean, genero-ekitatean eta garapen iraunkorrean interes handia daben filmak proiektatuz.*

El pasado mes de octubre, Mungia participó por undécimo año en este Festival con el objetivo de reflexionar y fomentar la conciencia crítica sobre diversos problemas que afectan a nuestra sociedad.

Se proyectaron 14 películas de gran interés humano, divididas en cuatro grandes ejes temáticos: derechos humanos, interculturalidad, igualdad de género y desarrollo sostenible.



Azaroaren 25ean hainbat ekintza antolatu ziran Mungian



Concentración en Mungia del 25-N.



Diz-Diz-en antzezana



Beldur Barik sariak

☞ *Mungia organizó diversas acciones con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional Contra la Violencia hacia las mujeres.*

Urtero lez, Mungiako Udaleko Berdintasun Zerbitzuak, emakumeen alkarteagaz eta mobimentu feministagaz batera, hainbat ekintza antolatu ebazan zemendiaren 25erako, Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna zala eta.

Mungia financia proyectos de cooperación en Benin (Africa)

Nuestro municipio lleva diecisiete años colaborando con la Fundación “Vida Para todos” de Benin (África), creada y liderada por el padre Theodore Soume, a través de la que el Ayuntamiento ha financiado proyectos de cooperación en las zonas más pobres del país.

Hemos recibido la visita del padre Soume para conocer la situación actual de los proyectos, así como reforzar los lazos de unión y los compromisos adoptados en su día.



Hospital de Banikoara

☞ *Udalak Beningo (Afrika) “Vida Para Todos” Fundazioagaz urte asko darama lan egiten. Fundazio horren bidez, Mungiak proiektuak finantzatzen dauz herrialdeko eremu pobreenetan. Fundazioaren arduradunaren bisita hartu dogu proiektuen egoerearen barri izateko.*


Bakardade Ikusezina eskultorea Torrebillelan izan zan, gura ez diran bakardade egoerak ikusarazoteko eta horren konzientzia hartzeko



☞ *El ayuntamiento pondrá en marcha un estudio para detectar la situación de soledad no deseada y proponer acciones para paliar las mismas.*

“Mercedes” eskultura hiperrealista Rubén Orozco eskultorearen lana, Torrebillela Kultur Etxean egon zan. Horren helburua norberak aukeratu bako bakardade-egoeraz kontzientziatzea eta egoera horreek ikusaraztea da. Aurten Udalak gai honegaz lotutako azterlana jarriko dau martxan, bakardade egoerak igarten ikasteko eta bakardade egoerak arintzeko helburua daukana.

Jagon daigun gure herria! - ¡Cuidemos de Mungia!



☞ *Jagon daigun gure herria. Guztion kontrako ekintzak jasan doguz Mungian; pintadak, altzarien haustura, kablearen lapurreta... era horretako jokabideek ez daukie lekurik Mungian, danon kontrakoak dira eta ezin doguz onartu.*

Últimamente, hemos sufrido numerosos actos incívicos en nuestro pueblo (pintadas, rotura de mobiliario, sustracción de cable,..), actos que van en nuestra contra. Este tipo de comportamientos

no tienen cabida en Mungia. Conjuntamente debemos trabajar para evitar este tipo de acciones que afectan directamente al cuidado de nuestro municipio y al bolsillo de todas y todos nosotros.

Mungia asfalta más de 20.000 m² en la campaña de otoño-invierno



☞ *Udalak 20.000 m² baino gehiago asfaltatu dauz. Ganera, oinezkoentzako hiru zebrabide altu eta hamabi abiadura-murritztaile eraiki dauz; horren ganera, 96 zulo baino gehiago konpondu dauz.*

En la campaña de asfaltado “otoño-invierno 2023”, el Ayuntamiento ha renovado el Ferial, la trasera de la calle Lauaxeta Olerkari, Ibaigane, Lehendakari Leizaola, Derio bidea, Martintxone bidea, Larragane bidea, Madalen bidea, calle Karmelo Etxegarai, Mitxelene bidea, Santa Elena bidea y Bakio bidea. Además, se han realizado también dos reductores de velocidad en Mitxelene bidea. Se han construido tres pasos de peatones elevados, doce reductores de velocidad, y reparado 96 socavones y baches. Todos estos trabajos han supuesto una inversión de 700.000 euros.

Jolasgune barriztatuak prest Paladon eta Landetxon

☞ *Las zonas de juego de Landetxo y Palado son más inclusivas e integradas con su entorno después de su renovación*

Mungiako Udalak Paladoko eta Landetxoko jolasguneak barritu eta hobetu dauz. Lan horreen bidez, guneak egokitu egin dira; lehengo jolasen ordeztu beste batzuk jarri dira, inklusiboagoak eta inguruneagaz integratuagoak. Izan bere, aisialdirako gune barri horretan oreka-jokoak, txirristak, etxolak, txinboak, ohe elastikoak eta beste elementu natural batzuk aurkituko doguz.



Torrebillera es ahora más accesible



☞ *Igongailu bat jarri da eszenatokira igotzeko, eta ekitaldi-aretoko zorua barritu egin da. Bertara doazenen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzen daben jarduerak dira honeek.*

Torrebillera Kultur Etxea ha mejorado su accesibilidad gracias a dos actuaciones llevadas a cabo por el Consistorio. La primera de ellas, ha consistido en la instalación de una plataforma elevadora que conecta el suelo del salón de actos con el escenario. La otra ha sido la renovación del suelo del salón de actos para mejorar la seguridad de las personas.

Mungirockek 8. urteurrena ospatu dau

Mungirockek abenduan ospatu eban bere zortzigarren urteurrena; hori dala eta, Mungiako Udalak eta Azken Zarata Mungiako Rock alkarteak kontzertu berezia antolatu eban abenduaren 16rako. Kontzertu horretan, LEIHOTIKAN punk rock talde iruindarrak eta BLISTER SUN punk rock covers talde mungiarak jo eban.

☞ *Mungirock celebró en diciembre su octavo aniversario con un concierto del grupo de punk rock pamplonés LEIHOTIKAN y de la banda mungiarra de punk rock convers, BLISTER SUN.*



Udagoienezan Musikaz Blai

☞ *El Ayuntamiento, en colaboración con la Asociación de Comercio y Hostelería de Mungia, crea la campaña “Udagoienezan Musikaz Blai” para incentivar el consumo en los establecimientos de proximidad del municipio.*

Mungiako kaleko negozioei lagunduteko konpromiso senduari eusteko, Udalak 100.000 euroko aurrekontua bideratu eban 2023an “Mungia Indartzen” programara. Aurrekontu horren zati bat “Udagoienezan Musikaz

Blai” programarako erabili zan, herriko ostalaritza arloko negozioak animetako helburuagaz. Kanpaina hau bere Mungiako Merkataria eta Ostalarien Alkarteagaz egiten dan alkarlanaren emaitza izan da.



Mungia celebró en noviembre su XXII Edición del Encuentro Internacional de Masas Corales



☞ *Mungiak Abesbatzen Nazinoarteko Topaketaren XXII. Edizino arrakastatsua ospatu eban zemendian.*

En esta nueva edición del festival que organizó J.M. Arregi Abesbatza junto con el Ayuntamiento, se pudo disfrutar en Mungia de los conciertos del Coro Akademski Pevski Zbor Maribor de Eslovenia, de Suhar Korua de Donostia, del grupo bilbaino Blue Velvet Gospel Singers. Además, y, como no podía ser de otra manera, del tradicional concierto de Santa Cecilia que ofrecen cada año los grupos mungiarros: Alaiak Mungialdeko Soinulari Elkartea, Gure Ametsa Txistulari Taldea, J.M. Arregi Abesbatza y Tantak Korala.

Ekintzak barra-barra Mungiako Gaztegunean



12 urte baino gehiago badaukazuz eta ondo pasau gura badozu, zatoz gazteguneaz gozatzen! Jolas eta jardura asko aurkituko dozue bertan, ez jatzue damutuko... ping pongeko mahaia, tailerrak, billarrak, futbolina eta beste hainbeste. Erdi gaztegunera!



BBK Mendi Martxa Jatara

☞ *En noviembre hubo una marcha al monte Jata, acercando al monte a personas con discapacidad y se limpió de residuos el recorrido.*

Joan dan zemendian, Jatarako mendi martxa egin zan, eta Mungiako Udalak bat egin eban BBK-k eta Bizkaiko Mendizale Federazioak bultzatutako ekimen honegaz, Tallu Mendizale Kirol Klubari esker heldu zana Mungiara. Urritasuna daukien personak mendira hurbiltzeko ahalegina eginda; ibilbidean zehar zaborrak garbitzeko lana burutu zan.



Euskeraren Eguna

Mungiako 2023ko bere emon ziran. Euskara Sariak “Badakit” izan zan ikasleei euskerea 2023kogaia, eta honeek transmititzen deutseen izan ziran irabazleak: eskola-jantokietako lehengo saria Maite zaintzaileak omendu Toledo Saralegientzat ebazan. Horregaz izan da, eta bigarrena batera, Lauaxeta Olerki Andoitz Urdapilleta Lehiaketaren sariak Gurrutxagarentzat.

☞ *Entre las celebraciones del Día del Euskera, se repartieron los premios Euskera Saria y Lauaxeta Olerki Lehiaketa.*



Mungia Rally; una clásica de nuestro calendario



Un año más, el IX Rally de Clásicos de Mungia, organizado por Mungia Racing Elkartea, en colaboración con el Ayuntamiento, nos hizo disfrutar de vistosos vehículos de época con modernos sistemas de seguridad y de navegación. La cita fue el 11 de noviembre. Así, pudimos ver más de


50 automóviles, algunos de más de 25 años, que participaron en el rally, con un trayecto de 12 tramos cronometrados en los que no podían sobrepasar los 50 km/h. Cabe destacar, la alta participación femenina entre quienes pilotaban y copilotaban.

➤ *Mungiako Klasikoen Rally tradizionalki aspaldiko ibilgailuez gozatzeko aukerea eskaini euskun. Guztira, 50 automobil baino gehiago ikusi ahal izan genduzan bertan.*

Mungiak Gau Baltzaren ohiturak barrinterpretatzen

➤ *“Gau baltza” de Mungia fue todo un éxito. El Ayuntamiento preparó el pasado 31 de octubre un atractivo programa, dando a conocer tradiciones muy arraigadas en la cultura vasca*

Mungiako Gau Baltza magian, bildurraren jokoan, iluntasunean eta musikan oinarritu zan. Udalak egitarau erakargarria prestatu eban urriaren 31n, adin guztietako pertsonen parte hartzeko, familian zein koadrilan. Mungiak gau izugarri dibertigarria antolatu eban, gau magiko honen inguruko egungo bizipenetan oinarrituta, euskal kulturen oso errotuta dagoan jaieguna baten tradizioak ezagutzeko aukerea emonez, munduko beste leku batzuetan ezagutzen doguzan ohitura eta erritu oso antzekoakaz.



Ya puedes disfrutar en Mungia de la gymkana turística “la Feria de la Concordia”



➤ *Doako jolas interaktiboa da; horren bidez, bisita autogidatu eta familiarra egin geinke, gure herriaren kultura eta historia ezagutzeko.*

Es un juego gratuito e interactivo, a través del que puedes realizar una visita autoguiada y familiar para conocer la cultura e historia de nuestro pueblo, utilizando el teléfono móvil mediante el siguiente link: <https://gymkanaturistica.com/game/?pin=mungia>. La gymkana está compuesta por 9 enigmas, 50 minutos de tiempo y un recorrido de 1 kilómetro.

Consulta toda la información en www.mungia.eus.

Giro ederra Lore Jokoetan

Mungia ha vivido un ambiente espectacular en sus Lore Jokoak 2023, muchísimas personas abarrotaron el centro del municipio ataviadas con trajes tradicionales para celebrar esta fiesta.


Mungiak jai-giroa zoragarria bizi izan eban egutegian gorritz markautako "Lore Jokoen" egunean. Herriko erdigunea soineko tradizionalaz jantzitako hamaikatxu lagunek bete eben, Mungiaren 100 urteak antzestu edo gogoratzeko helburua daukan jai egun hau ospatzeko: gure ohiturak, lanbideak, erabiltzen ziran tresnak... Azken baten, gure nortasuna erakusteko eta gordetako.



Gabonetan bizi Mungia!



Mungia celebró la Navidad con una completa programación que abarrotó nuestras calles para disfrutar de las diferentes actividades.



Mungiak ekintzaz beteriko programazinoagaz ospatu ebazan Gabonak, publiko guztientzako jarduerakaz. Herriko kaleak bete egin ziran, Gabonetako Azoka edo Olentzero eta Mari Domingiren etorrera lako jardueraz gozetako. Era berean, mungiar gazteenek umeentzako jolasetan, tailerretan eta, zelan ez, gabonetako Ume Parkean parte hartu ahal izan eben, baita Uraren Jaian bere, besteak beste.

2024 San Antontxu Jaiak



☞ *Miles de personas se acercaron a Mungia para disfrutar del tradicional día de San Antontxu y de todas las actividades organizadas para ese día en nuestro municipio.*

Milaka lagun hurbildu ziran Mungiara San Antontxu eguna eta bertako ganadu feria, postuak, Odoloste- eta txorizo- lehiaketa edota pelota partidak ikusteko... Horren ganera, lagun asko bertaratu zan programautako ganerako jardueraz gozatzeko, kasu baterako, Herri Krosa, gimnasia erritmikoaren erakustaldia, besteak beste.



MUNGIA
UDALA

www.mungia.eus



ARGITARATZAILEA:
MUNGIako UDALA: Trobika, 1 / 48100 Mungia <Bizkaia>
Tel. 94 674 12 16
komunikazioa@mungia.eus / www.mungia.eus

ALE KOPURUA: 7.000 • LEGE GORDAILUA: BI-2224/2012

